

XXXI. UMEEN ANTZERKI ASTEA
2019
BALANTZEA / JUSTIFIKAZIOA

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- GARAPENA**
- 5.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA**
- 6.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA**
- 7.- GASTUAK ETA DEFIZITA**

1. eranskina: Udal Eskola kontseiluaren batzarreko akta (2017ko urria)

2. eranskina: 2019ko antzerki jardunaldietako publizitatea

1.- SARRERA

Urtero berriztatzen den egitasmoa eta konpromisoa dugu hau, aurrekontu bakoitzean izan ditugun premia eta diru-baliabideen arabera betetzen saiatu garena, parte hartu duten eragileen eskakizunari ere erantzunda.

Udal Eskoletako monitoreekin/irakasleekin elkarlanean, Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan ahozko adierazmena euskaraz lantzea du helburu egitasmo honek. Gernika-Lumoko Udalak diru laguntza eta material baliabideak jarri ditu horretarako.

2.- HELBURUAK ETA XEDE TALDEA

Helburu nagusia:

Eskola orduetatik kanpo edota eskola mundutik gizarteratzekoak diren ekintza horietan parte hartzen dutenen artean euskarazko ahozko adierazmena lantzea eta esparru ez formalean erabilpena normalizatzea, eskola-hizkuntza gizarte-hizkuntza bilaka dadin.

Helburu mailakatuak:

1).- "Inmertsio linguistikoa" deituriko prozesu horretan, hizkuntza "bizitzarako baliabide" dugula-eta, euskararen prestigioa landu ikasleekiko:

- ikasteko
- jolasteko
- lagun berriak egin eta komunikatzeko (ikasle etorkinena batik bat kontuan hartuta).
- Jai giroarekin lotzeko.

2).- Ekintzak antolatzerakoan gurasoen partaidetza landuko da. Hizkuntza transmisioan familia oinarritzakoa izanik, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan euskararen erabilpena ere girotu nahi izango da, etxeko mugetatik aterata gizartean kokatuz.

3).- Hezkuntza arloari zehazki dagokionean, badira bide batez landuko diren atalak:

- Eskola mundua eta gizartea harremanetan jartzea.
- Ikasleak gizarteratzeko bideak jorratzea.
- Euskal ohiturak hedatzea.
- Ikasleen psikomotrizitatea lantzea.

ESEP-en helburuekin bat:

Indarrean daukagu 2019ko otsailean onartu zen 2019-2022 eperako ESEP eta horren arabera moldatu zen 2019ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako hurrengo helburuak landu dira egitasmo honekin:

- Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

2. Irakaskuntza

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen, eskolarteko antzerki jardunaldiak antolatu

- Helburua estrategikoa: 2.- Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

- 7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza, opor garaietakoak, udako ludoteka,

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatu ditu eta gainerako ekintzak antolatu (inprentakoak, ekitaldietarako baliabideak, e.a.).
- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egin dituen bilkuretan, bestea beste, ikasturtean burutu diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia zehaztu da. Ekintza horien artean Umeen Antzerki jardunaldiena (datak, baldintzak, partehartzaileak, ikusleak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 6 zentro (Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten guztiak).

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak/monitoreak (6): zentro bakoitzak egitasmo hau garatzeko arduradun bat jarri du.
- Diruzkoak, aretoa e.a.: antolaketaarako behar izan den azpiegitura Gernika-Lumoko Udalak jarri du eta jarduera zentroetan garatu ahal izateko diru laguntzak ere bideratu.

4.- GARAPENA

XXXI. Umeen antzerki asteak lau eguneko iraupena izan du: maiatzaren 24tik 26Ra, biak barru.

Jardunaldiak Gernika-Lumoko Lizeo Antzokian izan dira. Zentro bakoitzeko talde bat partaide, 6 talde guztira (LH eta DBH-koak).

XXXI. UMEEN ANTZERKI ASTEA – 2019

EGUNAK	ORDUAK	ANTZEZTALDEA	IKUSLEAK NORTZUK	ANTZEZLANA
Maiatzak 14	11:00	San Fidel ikastolako (LHko 6. mailako ikasleak)	<i>LH 6. mailako ikasleak (50 ikasle zentro bakoitzeko)</i>	<i>“Osaba Natxoren testamentua”</i>
	15:00	Barrutia ikastetxeko (LHko 6. mailako ikasleak)	<i>LH 5. eta 6. mailako ikasleak (50 ikasle zentro bakoitzeko)</i>	<i>“6. maila bukatu dut!”</i>
Maiatzak 15	15:00	Mertzedo ikastetxea (LHko 6. mailako ikasleak)	<i>Maila bereko edo beheragoko ikasleak (50 ikasle zentro bakoitzeko)</i>	<i>“Guk elkarri on eginez, zuk zergatik ez?”</i>
Maiatzak 16	11:00	Gernika Institutua DBH-ko ikasleak (11-14 urte)	<i>DBH 1, 2, 3. mailako ikasleak (50 ikasle zentro bakoitzeko)</i>	<i>“Super Heroiak”</i>
	15:00	Seber Altube ikastola (LHko 3. mailako ikasleak)	<i>LHko edozein mailatako ikasleak (50 ikasle zentro bakoitzeko)</i>	<i>“Klasikoak? Guai!”</i>

5.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Balorazio kuantitatiboa

Irakaskuntzako Plan sektorial bateko azpiekintzen bitartez, antzerki jardunaldiak barru, irakaskuntza esparruan inplikatur dauden guztiengan (ikasleak, irakasleak, gurasoak,...) eragin nahi da, euskararen erabilera areagotu eta erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea helburu. Beraz, irakaskuntzako komunitateak bere baitan 3.400 ikasle hartzen baditu, eraginpeko helduak (gurasoak gehi aitona-amonak) 7.000 inguru izango dira. Jabe gara komunitate horretako asko ez direla udalerrikoak, eskualdeko gainerako herrietakoak baino, baina gure kaleetan egunero harreman zuzena garatzen dutenak guztiak.

Osterantzeko datuak eman baino lehen, interesgarria da ikastereduen bilakaera zein izan den ikustea:

IKASTURTEA	GUZTIRA EREDUKA		
	A	B	D
1996/1997	%9	%16	%75
2001/1002	%1,9	%7,6	%90,3
2004/2005	%0	%6,7	%93,3
2007/2008	%0,62	%4,31	%95,07
2009/2010	%0,63	%2,38	%96,99
2011/2012	%0,30	%2,07	%97,63
2012/2013	%0,29	%2,02	%97,69
2014/2015	%0,28	%2,04	%97,68
2016/2017	%0	%0,30	%99,70
2018/2019	%0	%0,90	%99,10

D eredu: %99,10

B eredu: %0,90

A eredu: %0

Antzerki jardunaldietako balorazio kuantitatiboa:

- Xede taldea irakaskuntza zentro guztietako LH eta DBHko ikasleak izan dira (2.269 guztira) eta horietatik antzezle modura parte hartu dutenak 170 ikasle (LH eta DBHko maila guztietakoak). Beraz, landutako **unibertsoaren %7,49ak hartu du parte zuzenean**. Ikusle gisa egon direnak 1.600 ikasle izan dira (6 ekitaldi, 250 ikasle ekitaldiko). Hargatik, **landutako unibertsoaren %70,51ak izan du jardunaldien eragin zuzena**.
- Jardunaldietarako gonbitea egiten zaie antzezleen familietakoei. Horrez gain, LH-ko taldeetakoek gurasoentzat saio bereziak eskaini dituzte (170 antzezle x 4 familiakide bakoitzeko = 400 **guraso/aittite-amuma**).
- Jardunaldietako ekitaldi guztiak eskaini dira udalerriko Oiz-Mendi telebistatik, ikasleen gurasoen eskaerari erantzunez. Grabaketa

egin eta etxean ikusle izan diren pertsona helduen estimazioa 2000 ingurukoa da.

Balorazio kualitatiboa

Irakaskuntzari buruzko balorazio kualitatibo orokorra egin nahi badugu, hona ekarri behar ditugun datuak Berritzeguneak duela sei urte egindako inkesta baten emaitzak dira.

- Lagina: zentro guztietako LH 6. mailako eta DBH 1. mailako ikasleak (zentroko eta mailako gela bat).
- Emaitzak (erabilera mota desberdinen baloreak 1etik 5erakoak dira):

Eremu erdaldunenak	- Internet..... 2,49 - TB. Bideoak, zinea, prentsa..... 2,49 - Gurasoak beraien artean..... 2,52 - Auzoko ezezagunekin..... 2,95
Eremu euskaldunenak	- Eskola bera:4/5 tartean. - Eliza:4tik gora - Ikasleek anai-arrebekin..... 3,72 - Gelako lagunekin..... 4,9/4,20 - Kaleko lagunekin..... 3,71/3,67 - Auzoko ezagunekin..... 3,72 - Kirolean..... 3,70/3,30

Antzerki jardunaldietako balorazio kualitatiboa:

- **Ahozko erabilera eta trebezia** lantzearen garrantzia aipatu beharrik ez dago eta jardunaldi hauek horretarako beta ematen diete ikasleei, ahozkotasan hori eskolatik **eskolaz-kanpokoetara** eramanda, eskola-hizkuntza **gizarte-hizkuntza** bilaka dadin bideak jorratuz.

- Xede taldetik eragin zuzena edo zeharkakoa jasotzen dutenen kopurua kontuan hartuta eta landutako **hizkuntza esparrua ez-formala** dela ahaztu gabe, baldintza egokiak sortu dira xede taldekoen artean euskararen ahozko erabilpena areagotzeko **eskolaz-kanpo eta etxeko zein familiako kideen artean** komunikazioa euskaraz gara dadin. Narbarmendu egin behar dugu antzezleen artean ia bostena ditugula etorkinen familietako ikasleak.

6.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

Arestian aipaturiko ikerlanean islatu diren emaitzen arabera, irakaskuntza esparruan aurrerantzean ekiteko lan ildoak finkatu dira:

1.- Ikastetxeetan:

a.- Gurasoei landu beharrekoak:

- I. Etxean, telebista ikusten dutenean, euskarazkoa aukeratzea.
- II. Guraso biak euskaldunak izanik (%57) ere, erdaraz aritzen direnei zuzendua: ereduaren garrantzia.
- III. Etxean prentsa euskalduna izatearen garrantzia.

b.- Ikasleei zuzendutakoak:

- I. Interneten (sare sozialak) erabilera euskaraz egitearen garrantzia.
- II. Egunkariak euskaraz irakurtzearen beharra.

2.- Udalerri mailan:

a.- Ikastetxeetako gurasoei zuzendutako ekimenak: norbere hizkeraren prestigioa.

b.- Herriko pertsona helduei zuzendutakoak (kaleko ezagunak eta kaleko ezezagunak): asertibitatea landu eta aurreiritziak ezabatu.

c.- Prentsa euskalduna ikastetxeetan (egitasmoa). Erabileraren garrantzia.

7.- GASTUAK ETA DEFIZITA

Gastuak

Bi-klik (inprenta / 2000 lau orrikoak koloreetan	653,40
ZUZENEAN- Zerbitzu Teknikoa	2.049,06
Diru laguntzak zentroei	3.500,00
Partaideei diplomak	0
Publizitate banaketa	84,80
Guztira gastuak	6.287,26

Diru-sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundia (diru laguntza)...GUZTIRA	615,12
--	---------------

Defizita

Gastuak	6.448,65
Diru sarrerak	615,12
GUZTIRA DEFIZITA	5.833,53

Gernika-Lumon, 2020ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk.Normalizaziorako Teknikaria

1.eranskina

UDAL ESKOLA KONTSEILUAK 2018KO URRIAREN 17an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreko aztergaiak ekintzaka eta ordu desberdinetan aztertu dira.

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria)

.../...

3).- 10:30ean, XXXI. ANTZERKI JARDUNALDIAK

Bertaratuak:

Marisa Aldamizetxebarria (Euskara zinegotzia)
 Josu Ojinaga (Seber Altubeko ordezkaria)
 Marian Araukua (Allende Salazarreko ordezkaria)
 Anabel Gerrikagoitia (Mertzedeko ordezkaria)
 Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)
 Itxaso Garteizaurreakoa (San Fideleko ordezkaria)
 Goizalde Gezuraga (Barrutialdeko ordezkaria)
 Luis Ortuzar (Gernika Institutuko ordezkaria)

Hartu diren erabakiak:

1.- Entseguetarako egunak eta orduak banatu.

EGUNAK	Goizez 9:30-12:30	Arrats. 14:30-16:30
Maiatzak 8	Barrutia ikastetxea	Mertzedeko ikastetxea
Maiatzak 9	San Fidel ikastola	Seber Altube ikastola
Maiatzak 10	Barrutialde Institutua	Allende Salazar Ikastetxea
Maiatzak 13	Gernika Institutua	

2. Jardunaldi egunak: maiatzak 14, 15, 16 eta 17

EGUNAK	Goizeko 11:00etan	Arrats. 3:00retan
Maiatzak 13		Allende Salazar ikastetxea
Maiatzak 14	San Fidel Ikastola	Barrutia ikastetxea
Maiatzak 15	Barrutialde Institutua	Mertzedeko ikastetxea
Maiatzak 16	Gernika Institutua	Seber Altube Ikastola

3.- Sariak.- Taldeei diploma bat ematea, oroigarri gisa, eta antzerki saio baterako bono bana antzezleei.

4.- Otsailaren lehenengo asterako antzerki-lanaren fitxa aurkeztea:

- Antzezlanaren titulua.
- Zuzendaria.
- Sinopsia
- Antzezleak eta pertsonajeak.

5.- Lizeo antzokiko aforoarekin izaten diren arazoak saihesteko, aldez aurretik jakitea zentro bakoitzak zenbat ikasle eramango dituen ekitaldi bakoitzera. Arau nagusi modura, zentro bakoitzetik gehien jota 50 ikasle joan ahal izango dira.

2.eranskina

2019ko antzerki jardunaldietako publizitatea



ESKOLARTEKO
XXXI. ANTZERKI ASTE
19 GERNIKA-LU

ESKOLARTEKO
XXXI. ANTZERKI ASTE
2019 GERNIKA-LUMO

Maiatzaren
14tik 16ra
LIZEO ANTZOKIAN

EGUNA	ORDUA	ANTZERKIALDIA	IKUSLEAK	ANTZERKIA
MAI 14	15:00	SAN PEDRO IKASTOLA (U16 & mailako ikusleak)	U16 & mailako ikusleak	"Osoaio Norkaren testamentaria"
	18:00	BAKARRITIA IKASTETXEA U16 & mailako ikusleak	U16 & 16a & mailako ikusleak	"E. maila bukatu duri"
MAI 15	15:00	MERTZIOE IKASTETXEA U16 & mailako ikusleak	Maila bereko eta beheko mailako ikusleak	"Ola ekiten! En eginiz, zula zergatik ez?"
	18:00	GERNIKA IKASTETXEA Osoaio ikusleak (U14 eta 16a)	D16-12 & 16a mailako ikusleak	"Super Herakle"
MAI 16	15:00	SIBER ALDUNE IKASTOLA (U16 & mailako ikusleak)	U16a eta 16a mailako ikusleak	"Klanikoit? Oual"

△ KUSLEAK: 50 ikusle zentro bakoitzeko

